

MALORES ETXEBERRIA, IÑAKI GLEZ. DE GARAY, BEGOÑA MENDIGUTXIA, JUANJO RUIZ eta ALIZIA STURTZE.—*Sorginak eta errepresioa Euskal Herrian (bi kultur molde aurrez-aurre)*. Gordailu. Donostia, 1984.

Elkar lanean prestatutako liburu hau Xosé Estévez historiagilearen hitzaurrez dator. Horrez gainera, historiagile horren eta Jaxinto F. Setienen gainbegiratuarekin.

Historia saiaerazko libururik gehienek bezala, honek ere, bere alde onak eta txarrak soinean daramazki. Titulua eta parentesi tartean daroana irakurri ondoren, edonork pentsatuko luke Euskal Herriko kultura zaharraren errepresioa izan zela hemen XVII. mendearen haseran gertatu zena. Sorgin kontua supertizioaren munduan eman dena eta ematen dena da, kristautasuna baino haruntzago doana. Hori jakiteko aski da Testamentu Zaharra irakurtzea edo kristautasunik iritsi ez den herrietako sineskerak aztertzea. Hala ere, liburu horretan aurkitzen dudarik txarrena, zera da, sineskera zaharretako mitologia eta sorginkeria nahastea. Etnologo eta historiagileek aspalditik hainbeste lan egin dute gai horiek elkarrengandik bereizten eta orain, gezurra badirudi ere, bat batean eta historia ikertzaile izenean hor berriz ere elkar nahasirik. Akelarre zinemara eroateak nahasmendurik aski ekarri ez balu bezala.

Informatzaileak lehenik berak informatu beharra du gero besteei adierazteko, sorginez aritzean sorginkerietan erori ez dadin.

Bibliografia irakurtzean, badirudi, oinarri-oinarrizko iturrietara jo dutela. Baina iturri horiek zehaztasunez begiratu beharrezkoak dira, bestela itsasontziaren aingurarena gertatzen da, mundu guzian ibili baina ezer ikusi ez. Kasu honetan bibliografia berak erakusten digu beraren erabilera. Adibidez, lehen lerroan datorren *Las brujas y su mundo* J. M. Barandiaranena dela uste izatean. Sorginetaz idatzi diren liburu xorta hartu eta edonola jartzeak erakusten digu lanaren axolakebekeria.

Baina, hori ere gaitzerdi bestelako nahasmendurik ez balekar. Adibidez, 17. orrialdean badirudi Servet ere katolikoak erre zutela. Ez bai dute Galileo eta Servet-en artean bereizkuntzarik egiten. Gero, 19.ean, aberats eta pobre, boteretsu eta jopu «Testu inguru sozio-ekonomiko honetan kokatu beharko genuke sorginen arazoa ere». Bapo! Jules Michelet-ek 1862. urtean argitaratu zuen *La Sorcière* liburuan (hauen bibliografian ez datorrena) eman zituen aburuak hara hor non datozen. Gustav Henningsen-en lehen kapitulua behar bezala irakurri bazuten (bibliografia zerrendan jartzea ez da aski), gutienez ere zalantza izanen zuten eta holako egiztapenetatik ihes eginen zuten. Kezka izpirik izan balute, ez garai haretako elizak eta ez lehenagokoak deus ikustekorik ez zuela aintzinago Deuteronomio-k azaldu zuen edo salatu zuenarekin: «Ez bedi zurean aurkitu bere seme edo alaba sutan barna igaro-erazi dutenik, ez asmaginik, ez aztirik, ez sorginik» (Deut. XVIII, 10). Beraz, zertara dator 32-33. orrialdeetan adierazten dena? Liburuak idaztean kontu gehiago izan behar dugu. Grezia zaharreko pentsatzaileek ezer erakutsi baziguten analitikoak izatean datza.

Aurrerago, 41. orrialdetik, gauzak serioago datoz. Hor ere, pundu batzutan ohitura zaharrekin parekatu nahi badute ere. Ohiturak ere berezi beharrezkoak dira. Sorginkeriak toki segururik izatekotan supertizioarena da. Supertizio hori, sorgintzat hartuengandik baino gehiago beste nornahik sorgina ote zen susmotikakoagoa zen. Eta, historian argi dugu gorrotozko txarkeriak egiteko aprobetxatu zutela anitzek.

Gertakariak historiatzean lan hobea burutzen dute egileek. Hala ere, zenbait pundutan ez gaude akort. Adibidez, 73. orrialdean, Inkisizioaren adierazpenak ematean, «Inkisizioa delako eliz aginteak (azken batean botere zentralaren zerbitzuan) eraman zuen aurrera». Baina, bestelako botererik ba ote zen? Hori irakurtzean, badirudi, zentralismoaren errepresioa izan zela. Gainera, liburuaren izenburuak ere uste hortarako bidea ematen bai digu.

Inon ez du aditzera ematen sorginen salatzaile herriko jende xehea zela, populua bera jaunei, elizako erretoreari edo

goragoko agintariei salakuntzak egiten zitzaienak, jaun horiek Inkisizioko tribunalari parte eman zezaten. Ez da gauza berria sorgin ihiza, eta edonork daki ihizariak auzoan zirela, etxe berean ez zirenean. Baina, maila bereko jentea. Lancre-ren aurrez aurre Etxauzek hartu zuen jarrera adierazten du, baina baita ere adierazi beharrekoa zen burgostarra zela Logroño-ko auziak zuzenak ez izatea salatu zuena: Alonso de Salazar Frías. Gure herriaren eta gure kulturaren errepresiorik horrek ez du erakusten. Bestalde, Zugarramurdin «salaketa pila jaso ahal» izatean (82.orr.) nork salatuak ordea?

Hala ere, liburuaren parte batzuk interesgarriak dira. Lancre-ren iritziak oso ondo jasoak daude 75. orrialdetik aurrera.

Sorginen kontuak, XV. mendetik, erlijioak elkarrekin borrokatzeaz badu zer ikusirik. Euskal Herrian kolektiboki eman zen fenomeno hura lehenago Frantzian, Alemanian, Austrian eta Italiako ifarraldean emanaren antzerakoa zen. Bere era klasikoan «Malleus maleficarum» araura agertu zen (ikus, J. Caro Baroja, *El Señor Inquisidor y otras vidas por oficio*, lehen kapituluko zazpigarren partean).

Lapurdi aldean XVII. mendearen haseran eman zen, 1609. urtean epaitzeko. Aintzinago Nafarroako zenbait tokitan ere bai, bereziki ekaldean. Ez dugu aski ageri horietara kalbindarren mugimendua iritsi zen, baina bai Zuberoara. Gogoan izan Lancre epailariak euskaldunak berez gorrotogarri bazituen ere, idazkietatik agiri denez, hugonoteak sarrera izategatik ere gutarrentzat mesfidantza zuela. Baina, bestalde, oroi Leizarragaren garaiko jauntxoak kalbinismoaren aldekoak zirela, baina ez herria. Hor ere, gure historiaren arabera, Michelet-egandik datozen teoriak ez dute balio, eta elkar lanean euskaraz egin den liburu honek, zuzenki ez bada zeharka, egile horrek barreiatu zituen eritzietan du argudiozko egitura.

1609. urtean, Lancre-ren epaiketak hots handia atera zuten, psikosis-kolektibo izugarria sortu ere bai eta beldurtuak ihesari eman. Handik datoz lehen sorginak Zugarramurdira. Sorginak? Hobeto esango genuke sorgintzat hartuko zituzten beldurrez. Baina ordurako adi zeuden muga inguruko herriak eta beldurrez heurak kutsatuko ote ziren.

Hori zen Logroñoeko Tribunalaren hasiera. Baina, 1611.ean bat batean uzteak ere zerbait esan nahi du. Botere «zentral» hori izan zen apaiketak finitu zituen, erregeren eskua erakutsiaz. Beraz, gauzak ez dira, puntu horretan behinik-pehin, liburuan kontatzen diren bezala.

* * *

Negatiboki jardungo ez banaiz, sorginkerieri buruz nereki-ko eritziak agertzea premiazko iduritzen zait.

Zer ziren Sorginkeriari buruzko eritziak? Sorgina, Naturalezen gainetik dagoen zerbait bezala hartzen zen: hegan egiteko ahalmena, zein giltziaren zulotik sartzeko ere. Bestalde, herexia mailetarako garrantzizkoagoa, Satanen taldekoak. Akelarre bilerak, aintzinako *sabbat* legez: meza beltza, aker gurtzea eta abar. Horietatik zetozen gaitzak: begizkoak, gaixotzeak, haurren heriotzak, ondare edo soroeri gaitza sartzeak eta abar.

Jules Michelet-en teoriak (1862), errebelde taldea, Erdi Arotik elizarekin deskontent zeudenak osatua. Herexiaren funtsa hortikakoa du. Bere ideak hedakunde handia izan zuten, eta geroago marxismoa eta feminismoa aprobetxatu ziren, bakoitzak bere neurrira eroanaz. Baina, bere teoria horiek, erromantikoen joera fantastikoez zeharo kutsaturik zeuden. Margaret Murray egiptologari (1921) ez zion on handirik egin Michelet-en teoriak, sorginkeriak kulto zaharren jarraitzaile zirela sinesteko eta esanerazteko.

Gero, Montague Summers (1926) etorriko zen, Pierre Lancre-ri irakurriaz ondore hau ateratzeko: sorginak satanistak zirela. Baina, Sorginekiko ikuspegia, gure egunotan, beste era batera begiratu beharra dugu, bereziki Julio Caro Barojak 1933an *Anuario de «Eusko-Folklore»* urtekarian eman zituen agiriaren arabera. Han azaldu bai zituen Inkisizioko epaiketen zenbait agiri.

Hala ere, azken azterketarik sakonena, zalantzarik gabe, G. Henningsen-i zor diogu, *The Witches' Advocate. Basquet Witchcraft and the Spanish Inquisition* (1980). Gazteleraz 1981ean argitaratu zena: *El abogado de las brujas*, eta Alonso de Salazar Frías inkisitore zenari eskainia, sorgintzat epaituen alde ondo jokatu zuelako. Hau izan bai zen, Logroñon inkisizioko epailarietarikoa bat sorginez sinesten ez zuena eta auzirik ez egiteko lanean aritu zena.

Kontu izan, auziak 1609-1611 horietan, bi urteren buruan, egin zirela gero bat batean uzteko.

Gero, oroi, behin eta berriz errepikatu behar badugu ere, Ifar Euskal Herritik ihesik etorri zirela lehenak, Pierre Lancre-ren pertsekuzioarekin izaturik, Zugarramurdi eta Urdazubin kokatzeko.

Ordurako erlijiozko gerrateak iraganak eta juduak Espainiatik deserrituak baziren ere, ez ahaztu Trentoko Kontsilioaren eraginez (1545-46) profano edo jentil ekintzen kontra hartu ziren erabakiak, ezta ere ez ahaztu 1609an bota zirela Espainiatik azken arabeak. Beraz, giro hori da garaia haretakoa. Ezer guti behar zen jende artean psikosiza sortzeko eta guziak sorgin ihizari hasteko. Herbesteko edozerk edo edonork sortzen zuen susmo iluna, sospetxa.

Horregatik, sorginak inon kokatzekotan, superstizioaren munduan kokatu behar dira eta ez aintzinako beste kultura baten sineskeretan. Sorginkeriaren sineskerak mundu guzian zabalduak daude, mendeak zehar, gure egunokarteko iraupenez. Gezurra badirudi ere, oraindik ere badira sorginekin sinesten dutenak, eta sorginkeriekin nik neuk ere bai. Zenbait liburu irakurri besterik ez dago.

Baina, sorginekin mende guzietan sinistuarren, gertakizuen gora-beheragatik, XVII. mende haseratik XVIII.aren bukaerara arte, Inkisizioa bere indarrean iraunarren ez zen beste epaiketarik gai horretaz.

Mito eta kondaira zaharrekin inoiz nahasian agertu bazaizkigu ere, sorginak heuren izate propioaren jabe dira, horietan

sinesten duenaren baitan. Akelarrea ordea, aintzinako orgiak eta fertilitate erritoekin bere funtsean. Nolabaiteko erromes tokiak. Adibidez, honetan oinarritzen nuen «Arratzen sortzen da bizitza» deitu lana (ikus, *Iker-2. Piarres Lafitte-ri omenaldia*, 849-866 or.) Baina, akelarreak, gehienen baitan amets hutsak, eta ohetik mugitu gabeko harat-hunatko ibilerak. Hango praktikak, suaren inguruko dantzak, aker, apo, unjento, posoin, sorgin salda..., amets hutsak. Eginetan edo egitezkoan baino entzutezkoan gehiago oinarritzen direnak.

Esamesetan herejia kutsurik ere bada, bereziki Satanen, eta Elizaren kondena dator, Ofizio Santuak ere bere egitekoa bete beharrez. Azkenerako, hori, «ofizioa» bete.

Valle, Becerra eta Salazar Frías inkisitoreen txostenak ere irakurtzekoak dira. Agiriok bost mila aletan daude, eskuizkribuz, Archivo Histórico Nacional-en, Santo Oficio-ko bezala, Simancas-etik hara eramanak eta G. Henningsen-ek banan bada begiratuak. Michelet, Murray eta Summers ez ziren iritsi agiri horiek ezagutzera. Beraz, gaur egun, balio kaxkarra eskainiko digute, Euskal Herriko sorgineri buruz, horien eritzietan oinarrituriko lanak.

Epailariak nahi zutena aitortzera eroaten zuten salatu-atxilotua torturaren bidez. Gainera, epailariak ez zekiten euskararik eta itzultzaileen bidez ibili beharra zuten. Agiriok erakusten digute, sorginak, gizajo inozente batzuk baizik ez zirela.

Horregatik, ez dezagun beste era bateko mitorik sortu «bi kultur molde aurrez aurre» ikusi nahirik. Zeren, jokaera hori, inkisitore txarren parekoa litzake.

J. San Martin